



**Mutrikuko Udala**

## **ADIERAZPENA**

### **EUSKARAREN SUSTAPENERAKO UDAL-POLITIKEN ALDE**

Euskararen aldeko udal politika publikoak ukatzen dituzten Epaien berri izan dugu azken asteotan, 2020tik hona emandakoei jarraipena ematen dietenak. Horien aurrean hainbat erakundek eta herri-eragilek beren kezka eta haserrea agertu dute, eta guk ere hala agertu nahi dugu. UEMAK, EUDELeK eta Kontseiluak adierazpen bana proposatu digute gai honen inguruan, eta hiruetatik abiatuta, hauxe dugu esateko:

2016 urtean Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskadiko Toki Erakundeen Legeak aukera berriak zabaldu zizkion euskararen erabilerari, eta aukera horiek 179/2019 Dekretuaren bitartez bideratu ziren. 1982ko Euskararen Legea onartu zenetik hona, urrats handi-handia tokiko administrazio guztientzat, eta Mutrikuko Udalarentzat ere bai.

Herri-administrazio guztietan euskara zerbitzu-hizkuntza izateaz gain lan-hizkuntza izatea lortzea urteetako prozesu baten emaitza izan da, eta aurrerantzean bide horretatik jarraitu ahal izatea ezinbestekoa izango da hizkuntzen arteko normalkuntza lortu nahi badugu, beti ere herritarrek hizkuntza hautua egiteko duten eskubidea errespetatuta, orain artean egin den moduan.

Epaien ondorioek eraginik izaten badute, udalerrri euskaldunetan izango dute eragina bereziki, hizkuntzen erabilera normalizatuena horietan ematen baita. Lanean funtzionatzeko berezko hizkuntza euskara izatea lortu denean, atzera pausua litzateke egoera horri buelta ematea. Gure aurretik egon ziren herri-hautetsi guztiek egindako lanari eta jarritako konpromisoari esker heldu gara gaur egungo egoerara, eta geuri dagokigu atzera begira baino, aurrera begira lanean jarraitzea. Belaunaldi berriak euskaraz datoz, eta udalak ere euskaraz egin behar du aurrera, berezko duen udal autonomiatik abiatuta.

Euskaren erabilera sustatzearen inguruan adostasun politiko eta instituzionalak eta gizartearen elkarlanak euskararen bizitasuna ahalbidetu du gure herri eta hirietan. Administrazioetan euskararen erabilera handitzen ari bada, herritarrek horixe eskatzen dutelako ari da handitzen, gero eta herritar gehiagok eskatzen dutelako, exijitzen dutelako, harreman hori euskaraz izatea. Zer esanik ez udalerrri euskaldunotan.

Gaiaren larritasunaren aurrean Gizarte Erakundeen Kontseiluak dei egin die euskararen eta herritar guztien hizkuntza-eskubideen alde dauden eragile eta norbanakoei azaroaren 4an Bilbon egingo den manifestazioan parte hartzera, 17:00etan Euskaldunatik abiatuko dena.

Urrats bat aurrera egiteko garaia delako, euskararen gaia erdigunean jarri eta elkarrekin eragiteko unea delako, Mutrikuko Udalak bat egiten du UEMAK, EUDELeK eta Kontseiluak aurkeztu dituzten adierazpenekin.